

**GIZARTE-ZERBITZUEN EUSKAL KONTSEILUA (GZEK)****2012-10-15eko OSOKO BILKURAREN AKTA**

Eusko Jaurlaritzaren egoitzan
Lakua II (6. aretoa) Vitoria-Gasteiz

DEIALDIA EGITEN DUENA:

Lehendakaria: Gemma Zabaleta Areta andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua.

LEHENDAKARITZA ETA IDAZKARITZA:

- Lehendakaria bertaratu ez denez, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako sailburuorde **Alfonso Gurpegui Ruiz** jauna izan da **jarduneko lehendakaria**.
- Kontseiluaren lehendakariak izendatuta, **Angel M. Manero González** jaunak, Gizarte Gaietako Zuzendaritzako Gizarte Gaietako Arloko arduradunak, **idazkari** titular gisa jardun du.

BILDUTAKO KIDEAK:

Iñaki Múgica Flores jauna.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.

Miguel González Martín jauna.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Immigrazioko zuzendaria.

Miren Amilibia Urcelay andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Zerbitzuetako Goi Ikuskaritzako zuzendaria.

Gloria Múgica Conde andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako zuzendaria.

Celina Pereda Riguera andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailaren Droga Gaietako zuzendaria.

Ignacio Rodriguez Puertas jauna.- Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren Gazteriako zuzendaria.

Ignacio de la Puerta Rueda jauna.- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontroleko zuzendaria.

Isabel Muela López andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Turismoko zuzendaria.

Leyre Sologuren Etxenagusia andrea.- EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundeko teknikaria.

Paloma Aranceta Arilla andrea.- Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.

Sergio Murillo Corzo jauna.- Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailaren Gizarteratzea Sustatzeko zuzendari nagusia.

María del Río Pereda andrea.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Plangintzako, Inbertsioetako eta Prestazio Ekonomikoetako zuzendari nagusia.

Izaskun Uriagereka Legarreta andrea.- EUDEL (Mungiako alkatea).

Izaskun Landaia Larizgoitia andrea.- EUDEL (Ugao-Miraballesko alkatea).

Dorleta Goiburu Muruaga andrea.- EUDEL (Euskadiko Udalen Elkarte).

M^a José Blanco Gaveiro andrea.- EUDEL (Euskadiko Udalen Elkarte).

José Manuel Odriozola Azurmendi jauna (EUSKO FEDERPEN).- Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkarteetako Lurralde Federazioaren ordezkaria.

Iñigo Iriarte Lejarraga jauna (FEVAS).- Ezintasun intelektuala dutenen aldeko Elkartearen Euskal Federazioaren ordezkaria.

Aitor González Angulo jauna (ONCE Euskadi).- Zentzumen-urritasunaren arloan lan egiten duten EAEko erakundeen ordezkaria.

Juan Carlos Sola Guzman jauna (ELKARTEAN).- EAEko Desgaitu Fisikoen Konfederazio Koordinatzailearen ordezkaria

M^a José Cano Mesías andrea (FEDEAFES).- Euskadiko Eri Psikiko eta Senide Elkartearen Federakuntzaren ordezkaria.

Natalia Díez-Caballero Alonso andrea (HIRUKIDE-Euskadiko Kide Ugariko Familien Elkartearen Federazioa).- Familia Batzorde Iraunkor Sektorialaren ordezkaria.

Karmele Acedo Gil andrea (Servicios Sociales Integrados S. Coop).- Euskadiko Lan Elkartearen Kooperatiben Konfederazioaren ordezkaria.

Consuelo Ordejón Caballero andrea (Gizarterako Elkarte).- Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeko Aholku Batzordearen ordezkaria.

Josu Gago Palacios jauna (Agintzari Koop E.).- Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialaren ordezkaria.

Juan Ibarretxe Kareaga jauna (EAPN Euskadi).- Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorraren ordezkaria.

Mayte Díaz de Lezana andrea (Harresiak Apurtuz).- Etorkinen Laguntzarako GKEen Koordinakundearen ordezkaria.

Inmaculada Mujika Flores andrea (Aldarte Elkarte).- Gay, lesbiana eta transexualen erakundeen ordezkaria.

Gotzon Villaño Murga jauna.- EAEko Gizarte Laneko Elkargo Ofizialak.

M^a Arantzazu González Barquín andrea.- Euskadiko Gizarte-hezitzaileen Elkargoa.

Julene Gabiola Amallobieta andrea.- ELA sindikatua.

Jesús García Cos jauna.- UGT Euskadi.

Amaia López Iriondo andrea.- CONFEBASK (Euskal Enpresarien Konfederakuntza).

Gonzalo Salcedo Bilbao jauna.- CONFEBASK (Euskal Enpresarien Konfederakuntza).

EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTENAK

Gemma Zabaleta Areta andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua (GZEKren lehendakaria).

Mariola Serrano Argüeso andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren Genero Indarkeriaren Biktimen Laguntzarako zuzendaria.

Felisa Piedra Gao andrea.- CCOO Euskadi.

BERTARATU EZ DIREN KIDEAK

Osasunaren alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren saileko **kide bat**.

Hezkuntzaren alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren saileko **kide bat**.

Giza Eskubideen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren saileko **kide bat**.

Ekonomiaren eta Plangintza ekonomikoaren alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Saileko **kide bat**.

Kide bat Eusko Legebiltzarraren ordezkari gisa (Lan eta Gizarte Ekintzako Batzordea).

Bi kide enpresaburu-erakundeen ordezkari gisa (CONFEBASK).

Kide bat LAB sindikatuaren ordezkari gisa.

Kide bat Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren ordezkari gisa.

Kide bat droga-mendekotasunaren arloko erakundeen ordezkari gisa.

EUSKADIKO BESTE KONTSEILU BATZUETATIK BERTARATU DIRENAK (KIDE EZ DIRENAK):

Pascual Borja Borja jauna (Gao Lacho Drom Elkartea).- Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseiluaren ordezkaria.

KONTSEILUAK GONBIDATUTA BERTARATU DIREN BESTE BATZUK (KIDE EZ DIRENAK):

Luis Pérez Fernández jauna.- Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako psikologo-elkargoen ordezkaria.

Ibán Arrien Celaya jauna.- Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialaren ordezkaria.

.....

JORRATUTAKO PUNTUAK ETA HARTUTAKO ERABAKIAK

Quorum nahikoa izanik, lehen deialdian Osoko Bilkura behar bezala eratu da, aurretik idazki bidez bidalitako deialdian adierazitako tokian eta egunean. Bilkura 2012ko urriaren 15eko goizeko 10:10ean hasi da, lehendakariak finkaturiko honako **gai-zerrenda** honi jarraituz:

1. Aurreko bileraren akta onartzea (2012-07-19).
2. Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen garapenera eta aplikaziora bideratutako jardunei buruzko informazioa.
3. Kartera-dekretua onartzeko prozesuari buruzko informazioa.
4. Gizarte-zerbitzuetako irabazi-asmorik gabeko erakundeen gizarte-intereseko aitorpena arautzen duen dekretuari buruzko nahitaezko txostena ematea.
5. Elkarriketa Zibilerako Mahaia eratzen eta arautzen duen dekretuari buruzko nahitaezko txostena ematea.
6. Pertsona ardatza duen esku hartzeko oinarritzko prozedura bat egiteari buruzko txostena aurkeztea.
7. Gizarte-zerbitzuetako lan-baldintzei buruzko txostena ematea.
8. Lanbideren eta oinarritzko gizarte-zerbitzuen arteko koordinazio-protokoloei buruzko txostena.
9. Galde-eskeak.

.....

Alfonso Gurpegui jaunak, *GZEKren jarduneko lehendakariak*, legealdi honetako azken osoko bilkurara etorri diren kide eta gainerako pertsonak agurtu ditu, eta zorionak eta eskerrak eman dizkie, IX. legegintzaldian egin diren GZEKren 10 osoko bilkuretan eta beste foro eta/edo lantaldetan egindako lanagatik. Egin duten ekarpena aitortu eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema eraikitzen eta finkatzen lanean jarraitzera bultzatu ditu, "*sistema homogenea izan dadin eta pertsonen beharrak bete ditzan, hori baita gure lanaren xedea*". Hori esan ondoren, gai-zerrendan ageri diren gaiak garatzeari ekin dio.

1. puntua.- Aurreko bileraren akta onartzea (2011-07-19).

• **Txema Odriozolak**(Eusko Federpen) azken bilerako aktari buruzko ohar batzuk idatziz bidali nahi dizkio GZEKren idazkariari; ohar hauek, hain zuzen:

3. puntuan (EAEko Gizarte Zerbitzuei buruzko II. Txostenaren gomendioak) galdetu zuen ea zenbateraino erantzungo zaien kartera-dekretuko eta Etxez Etxeko Laguntza Dekretuko gomendioei, baita hurbiltasuneko arreta-ereduari (Etxean Ondo) ere. Aipatu du bi gomendio zeudela, etxex etxeko laguntza eta egoitzak gutxiagotzeko.

5. puntuan (Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren hitzarmen-araubidea arautzen duen dekretuari buruzko nahitaezko txostena) diputazioek esku hartu zuten eztabaida bat izan zen, eta aktan horri buruzko gauza gutxi jaso dira.

Akta onartzea erabaki da, Txema Odriozolaren ekarpenaren zain, eta akta berria GZEK-k kideei bidaliko zaie.

2. puntua.- Gizarte Zerbitzuetako 12/2008 Legearen garapenera eta aplikaziora bideratutako jardunei buruzko informazioa.

• Gizarte Gaietako sailburuordeak IX. legegintzaldi honetan burutu den arau-garapena eta aurrerapen orokorra berrikusi ditu.

1. Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoa
2. Gizarte Zerbitzuetako Zerbitzuen eta Zentroen Goi Ikuskaritza.
3. Prestazioen eta Zerbitzuen Kartera (berariazko puntu bat du gai-zerrendan)
4. Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa eta Gizarte Zerbitzuen Mapa.
5. Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazio Sistema
6. Telelaguntza Zerbitzu Publikoa
7. Gizarte Zerbitzuen Behatokia
8. Familia Bitartekotzako Zerbitzu Publikoa
9. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Hitzarmen Araubidea
10. Balioespeneko tresna tekniko komunak
11. Erabiltzaileen parte-hartze ekonomikoa
12. Eusko Jaurlaritzak esku-hartze sozialaren alorrean ematen dituen diru-laguntzen inguruko jarduera berrantolatzea
13. Koordinazio soziosanitarioa
14. Familia Elkarguneak
15. Gizarte Zerbitzuen Erregistroa
16. 131/2008 Dekretua, uztailaren 8koa, gizarte-babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabideak arautzen dituen
17. Nazioarteko Adopzioarako Erakunde Laguntzailearen homologazio-dekretua eta prozedurak
18. Gizarte-intereseko aitorpena arautzen duen dekretua (berariazko puntu bat du gai-zerrendan)
19. Gizarte-fitxaren eredua, GZESko gizarte-diagnosiaren tresna
20. Gizartean esku hartzeko oinarritzko prozedurari buruzko dekretua
21. Arreta goiztiarra arautzen duen dekretua
22. Etxez etxeko laguntza-zerbitzua arautzen duen dekretua
23. Desgaituentzako zerbitzuak arautzen dituzten dekretuak
24. Gizarte-gastua

- **Gizarte Gaietako sailburuordeak** adierazi du aurreko informazio guztia dokumentu batean bildu eta kide guztiei bidaliko zaiela bileraren ondoren. Xede horrekin, **1. ERANSKINA** erantsi zaio akta honi. Ondoren, esku-hartzeen txanda ireki da.

- **Julene Gabiolak**, ELA sindikatukoak, azaldu du, Gobernu Kontseiluak Plana eta Mapa oraindik onartu ez dituela kontuan izanik, jakin nahiko lukeela nola geldituko diren legegintzaldi-aldaketarekin. Halaber, hitzarmen-araubidearen eta ordainketa partekatutaren dekretuei buruzko argibideak eskatu ditu.

- **Alfonso Gurpeguik**, Plan Estrategikoari dagokionez, legea aipatu du, zehazten baitu Planaren neurrien eta jardueren dokumentuarekin batera (onartuta dago) beharrezkoa dela gizarte-zerbitzuen mapa osatuko duen dokumentu bat egotea, baita memoria ekonomiko bat ere. Negoziazio-prozesuan, lehen akordio bat lortu zuten neurrien eta jardueren dokumentuari buruz (2011ko apirilean onartu zuten GZEK-k eta Erakunde ateko Organoak) eta dokumentu hori Gobernu Kontseilura eramaten saiatu ziren. Erakunde arteko Organoan adierazi zuten dokumentu hori ez zela legeak agintzen zuen Plan Estrategikoa (izan ere, ez zituen Mapa eta Memoria Ekonomikoa) *“eta, beraz, Gobernu Kontseiluaren mahaitik kendu genuen”*. Prozesu horretan, Mapa garatzeko zenbait irizpide ere adostu dira Erakunde arteko Organoan; irizpide horiek GZEK honetan ere aurkeztu ziren. Eta Memoria Ekonomiko bat ere badago, Mapa horrekin bat datorrena. Puntu horretan, Planaren dokumentuak, gobernu-plan bat denez, Gobernu Kontseiluaren onarpena behar du. Eduki ekonomikorik ez duenez (Memoria Ekonomikoa aurreikuspen bat da, ez du gastu erreala lotzeko eduki ekonomikorik), Gobernu Kontseiluak onar dezake, nahiz eta jardunean izan.

Hitzarmen-dekretuari dagokionez, gai konplexua da eta zalantza juridiko batzuk ditu. Lehen fase bat egin zen eragindako alderdi batekin (hirugarren sektorea), eta hasierako akordio bat lortu zen Gobernuaren eta Elkarrikeraren Zibilerako Mahaiaren artean, dekretua osatu behar zuten elementuei buruzkoa. Eta eragindako beste alderdiarekin (erakundeekin), jendaurrean jartzeko izapidean jarri zen dekretua, eta zenbait alegazio jaso dira erakundeetatik. Alegazioak irakurri ondoren, adostasunak eta aurrerapenak ikusi dira. Baina dekretu hori berezia da eta erakunde arteko nahitaezko negoziazioa eskatzen du, *“eta une honetan, guk ez dugu irekiko”*. Hurrengo arduradunek, beraz, dekretuari buruzko aurrerapen bat dute, egoki baderitzote, negoziatu ahal izateko.

Ordainketa partekatuari buruzko dekretua izapidetzen ari da, eta erakundeek alegazioak egiteko prozesua itxita dago. Gogoratu behar da Erakunde arteko Organoak akordio bat lortu zuela uztaileko bileran; akordioak dekretu horren onarpena eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren finantziazioaren soluzioa lotu zituen. Hortaz, dekretu horren eta kartera-dekretuaren izapideek aurrera jarraituko dute, baina aintzat hartu behar da hiru dekretu horiek (kartera-ordainketa partekatutako ordainketa) *“osotasun baten hiru zati direla, Gobernuko arduradun berriekin maila politikoan negoziatu behar den multzo batenak”*.

Gai horiek guztiak, nabarmendu du, GZESn parte hartzen duten pertsonen bidaliko zaien dokumentuan jasota daude (Aktaren 1. eranskina).

3. puntua.- Kartera Dekretua onartzeko prozesuari buruzko informazioa.

- **Alfonso Gurpeguik** adierazi du dokumentua joan den ostegunean, urriaren 11n, aurkeztu zela Erakunde arteko Organoan, eta gaur GZEKn aurkeztu dela (mahaien gainean dago). Dokumentuan, jendaurreko informazio-aldian egindako ekarpenak daude. Alegazio horiek Sailaren webgunean daude ikusgai (alegazio orokorren taula eta alegazio espezifikoaren taula).

Sisteman parte hartzen duten agente guztiek aurkeztutako alegazioak aukeratzeko irizpideak hauek izan dira: lehenik, ahalik eta ekarpen gehien jasotzea, eta bigarrenik, alegazioen arteko erdiko puntua aurkitzea, *“izan ere, elkarren kontrako alegazioak zeuden, eta ahalik eta adostasun eta bat etortze handiena lortu nahi zen dokumentuan. Dokumentu hori eratu dugu, eta Erakunde arteko Organoak onartu beharko luke, baina ez zen aurkeztu, oraindik heltze-denboraldi bat behar baitu”*.

Onartu du negoziazio-prozesuak xede bat izan behar duela, baina gai horretan eskumena duten administrazioek dekretuari buruzko beto-gaitasuna dutenez, zalantzarik gabe *“zaila da dekretua adostea”*. Haren iritziz, administrazio guztiek nahi dute akordioa, eta erdiko puntuen bila dabilta, *“seguru asko, dekretua ez da inoren gustukoa, baina denoi eragiten digun dekretua denez, denon artean adostu behar dugu”*.

4. puntua.- Gizarte-zerbitzuetako irabazi-asmorik gabeko erakundeen gizarte-intereseko aitortpena arautzen duen dekretuari buruzko nahitaezko txostena.

- **Gizarte Gaietako sailburuordeak** nabarmendu du dekretu horrek Gobernuari ere eragiten diola, eta erakundeentzako alegazio-aldian, Bizkaiko Foru Aldundiak alegazio bat bidali duela. *“Alegazioak ez du gaia bera zalantzan jartzen, eskatzen du diputazioek beren jardueraren eremuan ahalmena izatea gizarte-intereseko aitortpenak egiteko”*, kasu horretan, Bizkaiko Lurralde Historikoan, Bizkaiko Foru Aldundiak eskumena izatea gizarte-intereseko aitortpena egiteko. Alde horretatik, legeak Eusko Jaurlaritzari agintzen dio araudia garatzeko, baina, hala ere, Gizarte Gaietako sailburuordeak adierazi du *“ikerketa juridikoa egingo dela, eta egin badaiteke, arazorik gabe onartuko dela. Gainera, alegazio hori nahitaezko txostenari erantsiko zaio”* (ikusi Akta honetako **2. ERANSKINA**).

- **Amaia Lópezek**(CONFEBASK), gizarte-eragileek egindako alegazioei dagokienez, *18/12 Irizpena* aipatu du, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetako Batzordearena, 2012ko irailaren 21ekoa, non dekretuaren artikuluei buruzko iritziz batzuk azaltzen diren (ez dute dekretuaren gaia zalantzan jartzen, baina zehaztasunak egiten dira). Irizpen hori EEGABren webgunean kontsulta daiteke: http://www.cesvasco.es/LinkClick.aspx?link=dictamenes_EU%2f2012%2fDICTAMEN+18_web.pdf&tabid=88&mid=574&language=es-ES).

- **Alfonso Gurpeguik** erantzun du txosten publikoa dela, eta balorazioa aurreratu du; hau da, iritziz horiek aintzat hartuko direla.

- **Txema Odriozolak** (Eusko Federpen) azaldu du dekretuaren zirriborroa irakurtzeak *“hitzarmen-dekretuari buruzko galdera askori erantzun dizkiola, funtsean gizarte-zerbitzuen legearen izaera jasotzen duelako, eta nork, nola eta zergatik hitzar daitekeen adierazten duelako. Hitzarmenaz eztabaidatu genuen egunean, oso garrantzitsua izango zen gai hau aurrean edukitzea”*. Dokumentua oso ona iruditzen zaio eta zorian eman ditu. Halaber, berriro adierazi du garrantzitsua izango dela dokumentua aintzat hartzea hitzarmen-dekretua eztabaidatzen denean.

- **Jarduneko lehendakariak**, beste inork txanda eskatu ez duenez, emandakotzat jo du GZEKren nahitaezko txostena, dekretu honi buruzkoa: Gizarte-zerbitzuetako irabazi-asmorik gabeko erakundeen gizarte-intereseko aitortpena arautzen duen dekretua.

(OHARRA: Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak bidalitako alegazioak **3. ERANSKINEAN** erantsi dira).



5. puntua.- Elkarrizketa Zibilerako Mahaia eratzen eta arautzen duen dekretuari buruzko nahitaezko txostena ematea.

• **Alfonso Gurpeguik** deskribatu du nola eratu zuten Elkarrizketa Zibilerako Mahaia, hasieran era informalean, Gobernuak, sareek eta bigarren mailako federazioek (gizartean esku hartzeko beste batzuk biltzen dituzte).

“Legegintzaldi honetan elkarrizketa-modu hori landu dugu, Elkarrizketa Sozialerako Mahiaren estiloan, baina ez da haren ordezkia, eduki eta kide desberdinak baititu. Eta iritzia emateko eta politika publikoetan parte hartzeko beste tresna bat da, gizartean parte hartzeko alorrean nabarmen den eragile baten bidez: gizartean parte hartzeko erakundeak”. Hasieran, lehen Mahaia 14 sare, federazio eta abarrekin eratu zen, eta lan horren ondorioz, Mahaiak berak proposatuta, parte hartzeko organo hori era formalagoan, ofizialagoan, antolatzeko eskakizuna sortu zen.

Horren ondorioz, dekretu bat idaztea sustatu zen, Mahaia parte hartzeko organo bat bezala arautzeko, Gobernuak hura arautzea zaila dela jakinda, eta Gobernuak xurgatu gabe. Izan ere, Elkarrizketa Zibilerako Mahaia ez da parte hartzeko ohiko batzorde bat (paritarioak izan ohi dira eraketari dagokionez, alde instituzionalaren eta ez-instituzionalaren artean), eta, beraz, parekotasun horrek ez du zentzurik, mahaia hirugarren sektoreak parte hartzeko baita.

Gainera, Gobernuari atxikitako organotzat hartuz gero arazoak sortzen zirenez, Mahaiaren eraketa aldatu behar izan zen, esku-hartze publikoari dagokionez batez ere. Beraz, oraingo testuan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko 4 kide baino ez daude (boto-eskubiderik gabe), eta gainerako 16 kideak hirugarren sektorekoak dira (haietako 2 hasieran zehaztu gabe), guztira 20 kide direla.

Dekretu hori legegintzaldi honetan egindako lanaren emaitza denez, legealdi honetan onartzea nahi dugu. Horregatik, administrazio-izapideak ahalik errazena izaten ahalegindu gara. Horrela, 3 kontseiluri soilik aurkeztu zaie, nahitaezko txostena egin dezaten (gizarte-zerbitzuetakoa, boluntarioena eta gizarteratzekoa), eta lege batetik ez datorrenez, ez da Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoan aurkeztu behar, ezta Aholku Batzorde Juridikoan izapideak egin behar ere.

• **Amaia Lópezek** (CONFEBASK) esan beharrekoen txanda ireki du, eta adierazi du alegazio orokorrak dituztela, argudiatuta eta zehaztuta, eta idatziz aurkeztu dituztela. Alegazioak laburbildu ditu, eta aipatu du dekretu horrek zuzenean urratzen duela Gizarte Zerbitzuetako 12/2008, Legea, 2 arrazoierengatik batez ere:

1.) Gizarte-zerbitzuen esparruan, kontsultarako eta erakundeetan parte hartzeko organo bat sortzeagatik, bat ez datorrena III. kapituluan aipatzen diren parte-hartzearen hiru formulekin.

2.) Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen 48. artikulua dioena ezeztatzeagatik. Artikulu horren arabera, GZEK kontsultarako eta parte-hartzerako organo nagusia izango da, Eusko Jaurlaritzan gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen sailari atxikia.

Halaber, honako hau nahi zuten: *“denbora gehiago izatea aztertzeko eta interpretazio juridikoa egiteko, oso gai garrantzitsua baita guretzat. Baina zirriborro hau azken unean jaso dugu, eta gure ustez bigarren bertsio bat da, eta azken kontseilura arte ez dugu zirriborrorik jaso, zerbitzu juridikoekin batera astiroago aztertu ahal izateko”.*

Azpitarratu du alegazioak idatziz aurkeztu dituela, aktan jasota gera daitezen (ikusi **4. ERANSKINA**).



• **Jesús García** (UGT Euskadi) balorazioa egin du: *“esperientzia interesgarria iruditzen zaigu eta adierazten dugu dekretu honen bidez hitzarmen sozialaren alderdi bat arautzen dela, baina ez hitzarmen osoa. Hitzarmen sozial hori bi mahaitan sortu da, elkarrizketa sozialerako eta elkarrizketa zibilerako mahietan, eta gure iritziz mahairen hanka bat baino ez da arautzen ari”*. Dekretu zabalagoa sortu behar zen, elkarrizketa zibila eta soziala barne hartuko zituen. *“Gobernuari gogorarazi behar diot 2010eko martxoan hirugarren sektoreko elkarteekin, gizartean esku hartzen dutenekin, hitz egin nahi zuela. Elkarrizketa zibilerako mahai bat aurkeztu zuen horretarako, eta izaera publikoa eman zion, elkarrizketa sozialerako mahaiarena bezalakoa. Hortaz, gure iritziz, elkarrizketa zibila elkarrizketa sozialaren antzera arautzen bada, logikoa da hitzarmen sozialeko prozesu honetan bi mahaiak modu zabalean arautzea, bai elkarrizketa zibilerako, bai elkarrizketa sozialeko. Baina ezin dugu bat instituzionalizatu, eta izaera juridikoa eman, eta bestea ez, biak antzekoak baitira. Erakundeen ibilbide luzea aitortzen dugu, eta nahiko genuke gai hau lantzea eta bi mahaiak onartzea, eta hitzarmen sozialeko dekretua zabala izatea”*.

• **Sergio Murillok**, Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkariak, adierazi nahi du *“pozgarria iruditzen zaiela entzutea “normatibizazioaz” gain –azken prozesua da eta hemen nahitaezko txostenerako aurkeztu da–, harremanak izan direla Gobernuaren eta hirugarren sektorearen artean”*. Eusko Jaurlaritzaren eta hirugarren sektorearen arteko elkargunea den neurrian, *“ez dugu ezer esateko”*. Beste gai bat izango litzateke –eta inoiz azaldu da– Euskadiko gizarte-zerbitzuak kudeatzen dituen administrazioaren eta hirugarren sektorearen arteko elkargunea izatea; orduan, ireki egin beharko litzateke. Iruzkin hori ez da alegazio bat, ohar bat baizik, eta poztu egiten da elkargune eta elkarrizketagune hori dagoelako batzuen eta besteen artean. *“Arauek errealitatea islatzen dute, eta ezin bada, errealitatea izango da eta ez da araurik izango; baina guri ez zaigu oso larria iruditzen”*.

• **Alfonso Gurpeguik** argitu du (UGTko ordezkariari) elkarrizketa zibilerako mahaiak ez dela eratzen hitzarmen-organo gisa gizarte-zerbitzuen sistemaren inguruan, ezta gizarte-gaien sistemaren inguruan ere, non eta amaierako politika publikoak direla ulertzen ez den. Baina, printzipioz, asmoa edo helburua elkartzeko eta eztabaidatzeko gune bat eratzea da, protagonismo-maila jakin bat duten eragile batzuekin.

Onartu du beste errealitate eta beste aukera batzuk badaudela, eta kontraesankorra ere izan daiteke –Sergiok zioen bezala– arau bat, dekretu bat, egitea elkarrizketa zibila arautzeko. Baina horrela egiten da, izaera juridikoa eta formaltasuna ematen diolako, eta mahai hori instituzionalizatzen duelako. *“Mahaiak ez da eratzen hirugarren sektorearen eta erakundeen arteko elkarrizketa-organo gisa, ezta gizarte-zerbitzuen politikak ezartzeko ere, baizik eta Gobernuaren eta hirugarren sektorearen arteko politika publikoetarako elkarrizketa-gune bat izateko. Azalpen hori eman ondoren, ekarpenak eta alegazioak jasoko ditugu eta, beti bezala, aktari erantsiko dizkiogu, eta nahitaezko txostena eratuko dute”*.

• **Txema Odriozolak** adierazi du hirugarren sektore gisa ez dutela ezer alegatuko, eta testu bat aurkeztu du idatziz jasota gera dadin. Testua Kontseiluko jarduneko lehendakariak irakurri du eta akta honi erantsi zaio **5. ERANSKINEAN**.

• **Izaskun Landaik** esan du EUDLe ere egingo duela alegazio bat (ikusitako akta honetako **6. ERANSKINA**), eta onartu du hasieran ez dutela kontzeptua ondo ulertu (uste zuten mahaiak erakundeen eta hirugarren sektorearen arteko baten, Gobernuaz gain, Foru Aldundia eta tokiko erakundeak, EUDLe bitartez, ere egon zitezkeela). Baina Alfonso Gurpeguik argitu duenez gero, ez da horrela, eta Gobernuaren eta hirugarren sektorearen arteko elkarrizketarako gunea denez, ez dute horretarako eragozpenik.

• **Juan Carlos Solak** (Elkartean) hirugarren sektorearen ikuspegia adierazi nahi du: *“Elkarrizketa Zibilerako Mahaiak jada egiten ari ginena antolatu du pixka bat. Sare guztiak zuzeneko elkarrizketa batean parte hartzen ari gara lurraldeetatik Gobernuarekin. Elkartzeko aukera izan dugu, nork bere kasa lan egin beharrean, eta esperientzia horrek hirugarren*

sektoreari aukera ematen dio ahalegin bat egiteko gizarte-politikak bideratzeko eta ekarpenak egiteko". Ekarpinak, hain zuzen, gaiarekiko hurbiltasuna eta ezaguera dira. Gobernantzaren ikuspegitik, antolatutako alderdi sozialarentzat oso adierazgarria da alderdi hori modu ofizialean irudikatzea: *"norberaren zailtasunek eta gizarte-arazoez eraginda sortzen gara"*.

Zuzeneko balio hori ekarri nahi dute Mahaiak eskaintzen duen espazio horretara, eta aldizkako bilerak maizago egin nahi dituzte (GZKEren urteko bilera baino bilera gehiago), "gizarte-akordio" baten antzera, eta, gero, akordio hori dagokion lekura joan dadila. Ez dute eraturitakoaren legezkotasuna zalantzan jartzen, eta ez dute ezer aldatu nahi. *"Legeari buruzko balioa eta ezaguera erantsi nahi ditugu, legeari buruzko garapena: zenbaitetan, gauzak hautematen ditugu, eta eragiten digunari buruzko proposamenak egiten ditugu (lurraldeetan edo lurraldeetatik, baita beste leku batzuetatik ere)"*. Protagonismoa nahi dute, gizarte-zerbitzuen legea jasotzen eta jasaten dutelako, baita lege horretatik ondorioztatzen eta garatzen diren gizarte-politikak ere. Eta horrek bide ematen die gizarte-politikei buruzko iritzia izateko, kasu honetan Elkarriketa Zibilerako Mahaiaren bitartez. Mahai hori dekretu baten bidez formalizatu nahi da, baina ez luke Gobernuaren ekimenaren mende egon behar; aitzitik, euskal gizarteak tresna baliagarritzat hartuko beharko luke.

Bere esku-hartzea amaitzeko, adierazi du nahiko lukeela alderdi sozialetik egindako ekarpenek *"zerbaitetarako balio izatea, ez entzuteko soilik: izan ere, oraindik elkarriketa zibilerako mahaiarekin ere ez dugu hori lortu. Gobernuak gauza batzuk nolabait hartu ditu, beste batzuk, berriz, inola ere ez"*.

- **Alfonso Gurpeguik** zehaztu du Mahaia ez dela gizarte-zerbitzuei buruzko elkarriketa-mahai bat, baizik eta politika publikoei buruzkoa, eta hirugarren sektoreak hori asko nabarmendu du. Beraz, hau eskatu du *"ez dezagun arreta gizarte-zerbitzuetan jarri; izan ere, osasun- eta etxebizitza-sailburuordeak politika publikoei, diru-sarrerak bermatzeko sistemari eta abarri buruzko informazioa ematera joan dira. Hirugarren sektorearekin politika publikoei buruz hitz egiteko organo bat da"*.

Juan Carlos Solari erantzun dio hirugarren sektorearen "kemena" aintzat hartzen duela. Izan ere, hirugarren sektorearen eskariak eta kemenak bultzatu du dekretu hori, berez ez baitago legeingintzaldiko egutegian eta ez du inongo legerik agintzen.

Hirugarren sektorearen ideiak hartzeari dagokionez, aitortu behar da *"partaidetza-organoak horretarako direla, parte hartzeko, eta uste dut ideia eta ekarpen guztiak hartzeko gai izan garela. Hartzeko gai izateak ez du esan nahi ekarpen guztiak onartzen edo gure gain hartzen ditugunik; izan ere, hori bera gertatzen da elkarriketa sozialeko mahaietan, legebiltzarrean edo erakunde arteko elkarriketa-mahaietan"*.

- **Iñigo Iriartek** (FEVAS) Juan Carlosek esandakoa interpretatu du, eta bat dator ideia honekin: tresna batzuek funtzionatu dute, hala nola Elkarriketa Zibilerako Mahaiak, non politika publikoak Gobernuarekin eztabaidatu diren. *"Gobernua eta hirugarren sektorea pozik gaude, horrek funtzionatu duelako. Gauza bera gertatu da Bizkaian: BFAk elkarriketa zibilerako mahai bat abiarazi du, eta horretan gabilta, mahaiari dagokiona lantzen. Eta gauza horiek funtzionatu egin dute"*.

Horregatik, egokia litzateke legeek funtzionatzen duena instituzionalizatzea. Pertsonen eta gizarte osoaren onurarako lan egin dute, hori baita hirugarren sektorearen helburu nagusia. Eta, gainera, mahaia ez dago inoren kontra, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak ez bezalako eskumenak baititu: *"hori beste kontu bat da"*. Eta Txemak esandakoa gogorarazi du; hau da, badirudi araututa ez dagoena ez dela existitzen.

Azken batean, elkarriketak atzera-aurreraren gainetik egon behar du, gizarte-zerbitzuen legearen garapenak irtenbidea izan dezan. Hau (dekretua) gauzek funtzionatzeko modu bat da, eta izaera juridikoa ematen dio, Gobernuarekiko elkarriketa nagusia izan dadin, politika publikoak hobetzeko.



• **Juan Carlos Solak** lehenago esan duena argitu nahi du; hau da, hirugarren sektoreak ez duela inor ordeztu nahi. *“Sortu den esperientzia positiboa da eta dekretu honen alde gaude. Legegintzaldi honetan sortu da, baina aurrera egin dezala nahi dugu, Gobernuan nor dagoen ere”*.

Solaskide egokiari dagokionez, *“aipatu nahi nuke leku honetan proposamenak egiten ditugula, eta, gero, ibilbide instituzional horretan, geratzen da geratzen dena, eta gure planteamenduek ez dute beti arrakasta lortzen. Hori da gure helburua, baina hori normala da. Hori da egunero erakunde guztiekin gertatzen zaiguna arauari dagokienez: (proposamen) batzuk onartu egiten dira, eta beste batzuk ez”*. Hirugarren sektorearen balorazio positibo horretan, nabarmendu behar da, batetik, GZEK-k aukera ematen diela urtean bitan etortzeko eta, bestetik, *“oso gai zehatzak, oso bereziak, lantzen ari garela, gure sektorearentzako oso garrantzitsuak”*. Hirugarren sektorearentzat positiboa den beste alderdi bat da baterako proposamenak Gobernuarekin batera lantzea (beste era batera ohituta zeuden: eragile bakoitzak bere sektorearen interesak soilik defendatzen zituen); proposamen horien xedea, hain zuzen, baztertzeko arriskuan dauden pertsonen bizi-kalitatea hobetzea da.

• **Txema Odriozolak** onartu du dekretuak azken 3 urtean egindako baterako lana nolabait gauzatzeko duela. Lan horretan, Euskadiko gizarte-sektorean ordezkariak handia duten era askotako erakundeek hartu dute parte. *“Dekretu hau testigantza bat izatea nahi dugu, eta dekretu bat beste batekin indargabetzen da, eta hurrengo Gobernuak elkarriketa zibilarekin jarraitu nahi badu, hor du aurrekari bat”*. Hori dela eta, uste du garrantzitsua dela dekretu honek aurrera egitea eta onartzea.

• **Jarduneko lehendakariak** beste inork txanda eskatu ez duenez, emandakotzat jo du dekretu honi buruzko GZEKren txostena, Elkarriketa Zibilerako Mahaia eratzen eta arautzen duen dekretuari buruzkoa.

6. puntua.- Pertsona ardatza duen esku hartzeko oinarritzko prozedura bat egiteari buruzko txostena aurkeztea.

• **Alfonso Gurpeguiren** iritziz, txosten hori Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean ere kokatu behar da, arreta pertsonalizatuko plana aipatzen baitu. Horregatik, Goi Ikuskaritzak esku hartzeko prozesuetara hurbiltzea proposatu zuen, lantalde bat sortuz. Lantaldean, hasieran BFAk eta zenbait udaletako ordezkariak parte hartu zuten (Amurrio, Durangaldea, Zumaia eta Zumarraga). Gizarte Laneko Elkargoko ordezkariak ere parte hartu zuten, eta azkenik, fase horretan sorturiko lana Arabako Foru Aldundiarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin kontrastatu da. Txosten hau da lan horren emaitza, eta dekretu bat egiteko oinarria izatea nahi da. Dekretu horrek txosten honen ondorio nagusiak jasoko ditu, eta baterako elementu nagusiak sentituko ditu, oinarritzko eta bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuek esku hartzeko.

• **Paloma Arancetak** (AFA) adierazi du alegazioak aurkezteko asmoa duela. Idatziz aurkeztuko dituzte, Erakunde arteko Organoan esan zuten bezala. Zalantza bat du Gizarte Gaietako sailburuordeak aipatu duen AFArekin egindako “kontrasteari” buruz: ez daki irailaren 13an egindako bilerari buruz ari den *“izan ere, kontraste bat baino gehiago, jarraitutako urratsen azalpen eskematikoa izan zen; eta, beraz, hori prozesu oso baten kontrastea dela esatea...”*

• **Alfonso Gurpeguik** ez du inolako arazorik “kontraste” termino hori zuzentzeko eta “azalpen” edo “elkarriketa” erabiltzeko. Gogorazi du lan-txosten honetan ekarpenak aurkez daitezkeela, eta alegazioak, berriz, dagokion garaian egingo eta aurkeztuko den dekretuaren dokumentuari buruzkoak izango direla.

Gotzon Villañok, EAEko Gizarte Laneko Elkargo Ofizialetako ordezkariak, eskerrak eman ditu, parte hartzera gonbidatu dutelako. Azaletik ikusi dute (txostena posta elektronikoz asteazkenean jaso baitzuten) zer-nolako partaidetza izan den eta profesionalek zailtasunei eta

hobekuntza-proposamenei buruz egin dituzten ekarpen ugariak, baita ondorioak ere. *“Gure ustez, hasiera ona izan daiteke, gero egingo den dekreturako”.*

- **Txema Odriozolaren** iritziz, txostena oso azterketa ona da dekretu bat egiteko, azken orrialdeko (27) ondorioak bakarrik kontuan hartuz, bermea eta segurtasuna ematen baitizkie erabiltzaileei nahiz erreferentziazko profesionali. *“Uste dut argitu egiten duela eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak ezartzen dituen helburuetako bat dela.”*

- **Miren Amilibiak**, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietako Goi Ikuskaritzako zuzendariak, txostenaren kudeatzaileak, adierazi du txostenaren aurrekaria 2011n aurkeztutako gizarte-zerbitzuen errealitateari buruzko txostena dela. Txosten hartan nabarmendu zen, besteak beste, udal bakoitza, aldundi bakoitza, eragile bakoitza... egoki iruditzen zitzaion bezala aritzen zela, bere ahalmenen arabera. Baina Goi Ikuskaritzaren funtzio garrantzitsuenetako bat araudi jakin bat bultzatzea da: herritarrek gizarte-zerbitzuak eskuratzeko duten eskubidearen homogeneotasuna eta berdintasuna dakarrena, bai eskuratzeko unean, bai esku hartzeko prozesu guztietan. *“Lan honen xedea hori da, hain zuzen ere: ahaleginak batzen saiatzea, jende guztiak, hasieran, gutxi gorabehera (erabat zorrotza izan gabe) eskuratu ahal izan dezan eta esku hartzeko maila edo mota berak izan ditzan. Hortik dator gero dekretuaren beharra”.*

7. puntua.- Gizarte-zerbitzuetako lan-baldintzei buruzko txostena ematea.

- **Gizarte Gaietako sailburuordeak** gogorarazi du urte hasieran eman zela lan-baldintzei buruzko azterketaren aurrerapena.

“Gizarte-zerbitzuen plan estrategikoan dagoen neurri bat da eta Legeak ere nabarmentzen du, lan-baldintzak ezagutzeko eta hobetzeko”. Orain dokumentua aurkeztu da, gizarteratzeko eta jakinarazteko. Gogorarazi du, halaber, GZEKren aurreko osoko bilkuran, dokumentuaren aurrerapena aurkeztu zuenean, aipatu zela *ad hoc* batzorde bat sor zitekeela, lan-baldintzak aztertzeke, legeak ere hori dioelako; baina gaiak batik bat gizarte-eragileen zenbait zailtasun edo kontsiderazio izan zituen. Helburua ez da negoziazio-organoak edo lan-baldintzak aztertzen dituztenak ordezkatzeko. Txosten deskribatzailea soilik izan nahi du, egoera argitzeko eta organoek eta eragileek zerbait egin behar dutela uste badute, egin dezaten.

- **Julene Gabiolak** (ELA sindikatua) esan du txostena aztertzean, etxeko laguntza-zerbitzuaren kasuan, ez dela bereizten bertako langileak eta azpikontratutako langileak, informazio hori 2002ko ekitalditik aurrera bakarrik eskura daitekeelako; beraz, ez dago 2000 eta 2001en ekitaldietako informazio hori. Hortaz, 2002tik aurrera badagoenez, jakin nahi du informazio hori eskura dezaketen.

- **Alfonso Gurpeguik** erantzun dio kontsultatu behar duela eskatutako informazio hori txostenaren lan teknikoan dagoen, eta hala bada, arazorik gabe bidaliko dietela.

8. puntua.- Lanbideren eta oinarritzko gizarte-zerbitzuen arteko koordinazio-protokoloei buruzko txostena.

- **Gizarte Gaietako sailburuordeak** adierazi du protokolo horiek, gizarteratze aktiborako hitzarmenen esparruan, gizarte-bazterketaren aurkako lege zaharraren nahiz diru-sarrerak bermatzeko lege berriaren aginduak direla, baita Eusko Legebiltzararenak ere. Eta uste du protokoloak gizarte-zerbitzuen eta enplegu-zerbitzuen eskaera hedatuak ere badirela (Lanbide indarrean sartu aurretik ere, sistema bien arteko harreman-esperientzia asko izan ziren herrietan, eskualdeetan...).

Orain arteko esperientziak biltzen saiatu den lantalde tekniko batetik sortu da protokoloa, eta sistema bien arteko harremana bateratu nahi du. Laneko gidaliburutzat hartzen da, eta ez da

dekretu batean gauzatuko. Hiru lurraldeetan aurkeztu zaie gizarte-zerbitzuetako eta enplegu-zerbitzu publikoko langile interesdunei.

Orain GZEKri jakinarazi zaion dokumentu honi zenbait alegazio egin dizkio EUDELe, baina adierazi behar da prozesuaren arduraduna Lanbide dela, eta horregatik bidali zaizkio alegazioak (ez da nahitaezko txostena, baizik eta landutako lankidetzaren protokoloaren proposamenari buruzko informazioa).

- **Dorleta Goiburuk** (EUDEL) zehaztu du lehen ere bidali zizkiotela Lanbideri protokoloari buruzko iritzi teknikoak, baina orain eranskin gisa sartzea nahi dute GZEKren aktan (ikusi [7. ERANSKINA](#)).

- **Gotzon Villañok**, EAEko Laneko Elkargo Ofizialetako ordezkariak, gogorarazi du duela urte bat baino gehiago, diru-sarrerak bermatzeko errenta Lanbideren eskumena izan baino lehen, saiatu zirela gizarte-zerbitzuen eta Lanbideren arteko koordinazio-organo hori sortzen. Alegazio zehatzak aurkezpenetan eman ditu, eta une honetan aurkeztea egokia ez bada ere, *“erabateko defizit bat nabarmendu nahi du: udalek borondatez lotzea koordinazioari”*. Horrela, gaiaren funtsa edozein izanik ere, letra hila bihurtzen da. Sistema baten eta bestearen arteko koordinazioak nahitaezkoa izan behar du, eta ez borondatezkoa.

- **Sergio Murillok**, Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkariak, Erakunde arteko Organoan egin zuen oharra errepikatu du: lan hau, foru-aldundiak gizarte-zerbitzuen esparruan dituen eskumenei dagokienez, gizarte-zerbitzu espezializatuekin edo foru-aldundikoekin koordinatuz garatu beharko da geroko fase batzuetan.

9. puntua.- Galde-eskeak.

- **Alfonso Gurpeguik**, bertan dauden pertsonen hitz egiteko txanda eman baino lehen, aprobetxatu du mahaletan emandako informazioa aurkezteko (informazio-liburuxka): Familia Politikei buruzko Kongresua, Vitoria-Gasteizen egingo dena, azaroaren 6an eta 7an.

- **Iban Arrienek**, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialaren ordezkariak, adierazi du, gaian adituak diren aldetik, parte hartu nahi dutela arreta goiztiarra arautzeko dekretuaren oinarriak lantzen ari den batzorde teknikoan. Halaber, eskerrak eman nahi ditu GZEKren azken hiru bileretan parte hartzen utzi dietelako.

- **Kontseiluko jarduneko lehendakariak**, kontseilu hau azkena izanik, zorionak eta esker ona adierazi dizkio berriz ere GZEKri.

Asmo hori adierazteko, erakundeetako eta gizarteko beste kide batzuek ere Eusko Jaurlaritzari haxe eskertu diote:

- Beti jaso duten laguntza, desadostasunak alde batera utzita, eta gizarte-zerbitzuak Euskadin eraikitzeke egindako ekarpena (BFA);
- Egindako lana eta emandako erraztasunak (EUDEL);
- Sailaren eskuragarritasuna, beti entzun baititu hirugarren sektorearen arazoak edo kontsultak, eta eskerrak eman nahi dituzte Elkarrietzeta Zibilerako Mahaiaiatik, lan egiteko zeharkako ardatza izan baita (FEDEAFES).
- Lankidetzan aritu diren urtean gai askotan lortu den adostasuna, aurrera egingo duten itxaropenarekin, eta ez dadila irekitako bidea itxi bukatu gabe dauden gaietan (adibidez, gizarte-zerbitzuen finantziarioa: kartera, ordainketa partekatua, etab.) (GFA).
- GZEK bezalako gizarte-foro batean, tristuraz beteriko gogoeta bat, susmoa baitugu erritmoa markatuko digutenak alderdi finantzarioa eta interes ekonomikoak izango direla, eta ez alderdi sozialak eta pertsonen arreta (FEVAS).
- Eskerrik asko oinarriak jartzeagatik. Izan ere, horri esker, hasitakoa jarraitzeko borondate politikoa izango da; hau da, gai-zerrendako 2. puntuko jarduera-zerrendan jasotzen dena eta zuen lana laburbiltzen duena jarraitzeko (FEDERPEN).

Aitorpenak eta esker onak egin ondoren, eta eskari edo galdera gehiagorik ez dagoenez, 2012ko urriaren 15eko 11:20an amaitutzat eman da bilkura.

IDAZKARIA:

O.e.
Jarduneko LEHENDAKARIA

1. ERANSKINA

GIZARTE-ZERBITZUEN LEGEAREN GARAPENA ETA APLIKAZIOA, **EUSKO JAURLARITZAKO ESKUMENEI DAGOKIENEZ** **Bederatzigarren legegintzaldia**

Dokumentu honetan, Gizarte Zerbitzuen Legearen eta gizarte-zerbitzuetan eragina duten beste lege batzuen garapen eta aplikazioan IX. legegintzaldian eman diren urratsak berrikusi dira.

1. Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoa

Martxoaren 30eko 101/2010 Dekretuak arautua.
Zortzi ohiko bilkura egin dira.

2. Gizarte-zerbitzuen arloko Goi Ikuskaritza.

Irailaren 14ko 238/2010 Dekretuak arautua.
Goi Ikuskaritzako zuzendaria izendatu da 58/2011 Dekretuaren bitartez.
Gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren egoerari buruzko lau azterketa egin dira:

"Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen errealitateari buruzko azterketa".

"Gizarte-zerbitzuetako kalitate-adierazleei buruzko ikerketa".

"Esku hartzeko oinarritzko prozedura".

"Gizarte-zerbitzuen kudeaketa antolatzeko formula juridikoen azterketa"

3. Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroa.

2011ko irailetik 2012ko otsailera arte garatutako negoziazio politikoaren prozesuaren ondoren, dekretu-zirriborro bat egin zen, Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoan (GZEO) 2012ko otsailean onartua, eta instituzio eta erakunde sozialen alegazioak aurkezteko epea ireki zen. Hortik abiatuta, beste zirriborro bat egin zen, eta Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoan (GZEO) aurkeztu zen 2012/10/11n.

4.- Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa eta Gizarte Zerbitzuen Mapa

Planaren neurriei buruz, erakunde arteko hasierako akordio bat lortu zen GZEOn 2011ko apirilean. 2011ko ekainean diagnostikoa eta helburuen eta neurrien dokumentua aurkeztu zen GZEKn eta GZEOn.

Ondoren, maparen irizpideei buruzko akordio bat lortu zen GZEOn 2012ko otsailean. Maparen dokumentua eta memoria ekonomikoa GZEOn aurkeztu ziren 2012ko maiatzean.

Gaur egun, dokumentuaren administrazio-izapideak egiten ari dira, Gobernu Kontseiluak onar dezan.

5.- Gizarte-zerbitzuei buruzko informazio-sistema.

Une honetan, abian da gizarte-zerbitzuen informazio-sistemaren ekoizpen lehen fasea, eta Gipuzkoako eta Bizkaiko udal gehienek alta hartu dute, baita hiru aldundiek ere.

Dekretu arautzailearen lehen zirriborroa idatzi da eta, ondoren, abiatzeko agindua idatziko da.

6.- Telelaguntzako zerbitzu publikoa.

2011ko uztailaren 1ean abiarazi zen, *Beti On* markarekin, eta beste zerbitzu soziosanitario batzuk gehitzen ari dira, Osasun Sailaren lankidetzarekin.

2012ko ekainaren 1ean, 25.797 erabiltzaile alta hartuta zeuden zerbitzuan.

Zerbitzua arautzen zuen dekretua 2011ko ekainaren 28an onartu zen, eta 2012ko urriaren 2an aldaketa bat egin zitzaion.

Kudeatzeko informatika-sistemari esker, oinarrizko gizarte-zerbitzuak kontsulta daitezke eta eskaeraren tramitazio telematikoa egin daiteke.

7.- Gizarte-zerbitzuen behatokia.

Dekretu arautzailea 2011ko urriaren 26an onartu zen eta, maila operatiboan, *Ikuspegi@k* izeneko gizarte-gaietako behatokiaren sarean dago.

Behatokian, gizarte-zerbitzuen arloan egindako azterketak kontsulta daitezke, baita gizarte-gaietako buruzko dokumentuen datu-basea ere.

8.- Familia Bitartekaritzako zerbitzu publikoa.

2012ko ekainean, bitartekaritzako zerbitzu publikoa Gipuzkoan ireki zen, eta 2012ko urtarrilean, Araban. Horrela, hiru lurraldeetan aurreikusitako hedapena amaitu zen. 2009tik 2011ra 13.085 jarduera egin dira.

Bitartekarien Erregistroari buruzko Dekretuak, erregistroa eta prestakuntza arautuko dituenak, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren nahitaezko txostena jaso du, eta, ondoren, Gobernu Kontseilura bidaliko da, onar dezan.

9.- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren hitzarmen-araubidea.

Hasierako akordio bat lortu zen Elkarrietzeta Zibilerako Mahaiarekin, eta, ondoren, dekretu-zirriborro bat idatzi zen eta erakundeek alegazioak aurkezteko epea ireki zen. Une horretatik aurrera, erakundeen arteko elkarrietzeta-aldia hasi beharko da. Bestalde, txosten juridikoa eskatu zaie saileko zerbitzu juridikoei.

10.- Balioespeneko tresna tekniko komunak.

Babesik gabeko haurren egoerak balioesteko tresna teknikoa arautzen duen dekretua (Balora) 2011ko azaroaren 8an onartu zen.

Bazterketa-egoerak balioesteko tresna teknikoa arautzen duen dekretuak alegazio-prozesua bete du, eta 2012ko urriaren hasieran amaitu da.

Bi kasuetan, lehen eta bigarren mailako gizarte-zerbitzuetako profesionalak parte hartu dute.

11.- Erabiltzaileen parte-hartze ekonomikoa

Gobernuak egindako testuari buruzko alegazioak aurkezteko epea 2012ko urrian amaitu da.

GZEOk 2012ko uztailaren erabaki zenez gero, dekretu honen onarpena loturik dago gizarte-zerbitzuen sistemaren finantziarioari buruzko negoziazioarekin.

12.- Eusko Jaurlaritzak esku-hartze sozialaren alorrean ematen dituen diru-laguntzen inguruko jarduera berrantolatzea.

2009ko abenduaren 29an, 649 Dekretua onartu zen. Dekretuak hiru lerrotan biltzen ditu gizartean esku-hartzen duen hirugarren sektorearentzako diru-laguntzak. Orain, Dekretua aldatzen ari dira, aplikatzeko esperientziatik abiatuta, eta KEBren eta legezkotasunaren txostenak jaso ondoren, Gobernu Kontseilura eramango da. Halaber, 2013ko ekitaldirako diru-laguntzen aurretiko aginduaren izapideak egiten ari dira.

13.- Koordinazio soziosanitarioa.

GZEK sortu zen, 69/2011 I. Dekretu arautzailean oinarrituta.

Bi aldiz bildu da, eta dokumentu hau onartu da: "EAEn koordinazio soziosanitarioa egiteko ildo nagusiak".

14. Familiarentzako elkarguneak

Akordio bat lortu da Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailarekin, 2012ko urtarriletik aurrera Familia Elkarguneen zerbitzu publikoak Justizia Zuzendaritzak kudea ditzan, sistema judizialarekin duten inplikazio handiagatik.

15.- Gizarte-zerbitzuen erregistroa.

Dekretua 2012ko uztailaren 24an onartu zen. Une honetan, hura aplikatzeko tresna informatikoa egiten ari da, eta aurreikusten da 2013ko apirilean sartuko dela indarrean.

16.- 131/2008 Dekretua, uztailaren 8koa, gizarte-babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabideak arautzen dituen.

Bosgarren xedapen gehigarrian aurreikusitako Batzorde Mistoak, baita Haur eta Nerabeen Batzorde Iraunkorrak ere, honako hauek onartu dituzte: 10. artikuluko 2. idatz-zatian adierazitako eta batzorde teknikoetan landutako lankidetzarako eta koordinaziorako zazpi protokoloak. Ondoren, GZEKren Haur eta Nerabeen Batzordean aurkeztuko dira.

17.- Nazioarteko Adopziorako Erakunde Laguntzailearen homologazio-dekretua eta prozedurak

Abenduaren 27ko 277/2011 Dekretua onartu zen.

18. Gizarte-larrialdietarako laguntzak.

Gizarte-larrialdietarako laguntzak arautzeko dekretua 2011ko urtarrilaren 18an onartu zen, eta prozedura bat ezarri da udalek kapitulu honetan egiten duten gastuaren hiru hilez behingo segimendua egiteko.

19.- Gizarte-intereseko aitorpena arautzen duen dekretua.

Dagozkion nahitaezko txostenak eskatu dira, eta alegazio-aldia 2012ko urriaren hasieran itxi da.

20.- Gizarte-fitxaren eredua eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako gizarte-diagnosiaren tresna.

Abiatzeko agindua egin da, eta dagozkion nahitaezko txostenak eskatu dira. Udalei eta foru-aldundiei egin ahal zaizkien alegazioak aurkezteko epea amaitu berri da. Alegazioak aztertu ondoren, izapideak egiten jarraituko da.

21.- Gizartean esku hartzeko oinarritzko prozedurari buruzko dekretua.

Goi Ikuskaritzak txosten bat egin ondoren, zirriborro bat bukatzen ari dira, onartzeko izapideak hasteko.

22.- Arreta goiztiarra arautzen duen dekretua.

Zirriborro bat eginda dago, erakunde eta sail arteko batzorde teknikoaren lanean oinarrituta.

23.- Etxez etxeko laguntza-zerbitzua arautzen duen dekretua.

Zirriborro bat badago, eta horrekin hasiko dira izapideak egiten, erakunde arteko batzordearen lan teknikotik abiatuta.

24.- Desgaituentzako zerbitzuak arautzen dituzten dekretuak.

Lehenengo zirriborroak egiten ari dira zerbitzu hauek arautzeko: pertsona desgaituentzako bizitza independentea, eguneko egoitza eta egoitza-zentroak, eta laguntza teknikoen eta ingurune fisikora egokitze zerbitzua.

25.- Gizarte-gastua.

Erakunde arteko batzorde bat eratu zen. Zenbait bilera egin ditu. Eta Eusko Jaurlaritzak sistema finantzatzeko proposamen bat aurkeztu zion ekainean. Gainerako erakundeek 2012ko urriaren 11n GZEOri egindako proposamenak aurkeztu dira.



2. ERANSKINA



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

Gizarte
Ekintza Saila
Departamento
de Acción Social



ENPLEGU ETA GIZARTE GAIAKOTAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

2012 IRA. 19
SEP.

Erregistro Orokor Nagusia
Registro General Central

SARRERA	IRTEERA
Zk. 804/95	Zk.



Bizkaiko Foru
Aldundia
GC2

Diputación Foral
de Bizkaia
DU2

17 SET. 2012

Zk/Nº 165.154
Irteera / Salida

IÑAKI MUGICA FLORES
DIRECCIÓN DE SERVICIOS SOCIALES
GOBIERNO VASCO
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN, S/N
01010 – VITORIA-GASTEIZ

Bilbon, 2012.eko irailaren 17an.

Jaun agurgarri hori:

Uztailaren 26ko zure idatzian eskatzen zenigun zerbitzuen irabazi asmorik gabeko entitateen gizarte intereseko adierazpena arautzen duen Dekretoari Sail honek egin nahi zizkion alegazioak bialtzeko. Honen inguruan jakinarazi nahi dizut joan den ekainaren 15a baino lehen igorri genizun idatzian adierazitakoan berresten garala, hau da, horrez gainera, ez dugula alegazio gehiagorik. Orduan adierazitakoa berriz bialtzen dizut idatzi honi deusola.

Beste barik, agur.

Estimado Sr.:

En relación a su escrito de fecha 26 de julio pasado, en el que solicitaba a este Departamento la remisión de las alegaciones al Decreto por el que se regula la declaración de interés social de las entidades sin ánimo de lucro de servicios sociales, indicarle que nos reiteramos en las alegaciones ya remitidas en fecha anterior al 15 de junio, alegaciones que vuelvo a remitir junto a este oficio.

Sin otro particular, reciba un cordial saludo.

IZ./Fdo.: ANDONI REKAGORRI BARRENETXEA
ADMIISTRAZIOAREN ETA PLANGINTZAREN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR GENERAL DE ADMINISTRACIÓN Y PLANIFICACIÓN



**ALEGACIONES QUE PRESENTA LA DIPUTACIÓN
FORAL DE BIZKAIA AL DECRETO POR EL QUE SE
REGULA LA DECLARACIÓN DE INTERÉS SOCIAL DE
LAS ENTIDADES SIN ÁNIMO DE LUCRO DE
SERVICIOS SOCIALES**

El presente proyecto de Decreto fue tratado en la reunión que celebró el Órgano Interinstitucional de Servicios Sociales en su reunión del día 23 de Mayo de 2.012. en la citada reunión se fijó el 15 de Junio como fecha tope para hacer las alegaciones que los miembros del Órgano estimaran pertinentes. Dentro del plazo señalado, la Diputación Foral de Bizkaia realiza a través de este escrito una única alegación al texto propuesto.

La enmienda presentada va referida al artículo 3 del Reglamento, aquel referido a la **competencia**. El citado artículo dice que *la declaración de interés social corresponderá al Departamento del Gobierno Vasco competente en servicios sociales*.

Entiende la Diputación Foral de Bizkaia que cuando la declaración de interés social vaya referida a una entidad que opere exclusivamente en un Territorio, deberá ser la Diputación Foral correspondiente quien haga tal declaración. Todo ello en coherencia con nuestro entramado institucional y la propia Ley de Servicios Sociales.

Por tanto, entendemos que el artículo 3 del reglamento debería quedar redactado así: *La declaración de interés social corresponderá al Departamento del Gobierno Vasco competente en servicios sociales cuando se trate de una entidad de ámbito supraterritorial. Cuando sea una entidad que opere en un único Territorio corresponderá a la Diputación Foral hacer la declaración pertinente.*

3. ERANSKINA

EUSKADIKO FISIOTERAPEUTEN ELKARGO OFIZIALAREN ALEGAZIOAK

.../... Dekretua, gizarte-zerbitzuetako irabazi-asmorik gabeko erakundeak gizarte-intereseko deklaratzeari buruzkoa.

III. KAPITULUA GIZARTE-INTERESA AITORTZEA

6. artikulua.- Prozedura hastea.

2.- Eskabidearekin batera agiri hauek ere aurkeztu behar dira:

d) Memoria

Erakundeak dituen langileak, datu hauek jasoz:

- erakundeak guztira zenbat pertsona kontratatu dituen;
- lan-kontratu mugagabea duten pertsonen proportzioa;
- beste erakunde batekin zerbitzuak azpikontratatzearen esparruan, erakundeak burutzen dituen jardueretan parte hartzen duten pertsonen proportzioa, azpikontrataturako erakundea irabazi-asmorik gabekoa den ala ez zehazturik;
- lan-kontratu mugagabea duten pertsona desgaituen proportzioa;
- zuzeneko laguntza ematen duten pertsonen ratioa, zerbitzuka bereizita;
- teknikarien ratioa, zerbitzuka bereizita.

-Erakundearen jardueretan parte hartzen duten profesionalak kolegiatuta eta aseguratuta daudela justifikatzea.

ARRAZOIBIDEA

18/1997 Legeak, azaroaren 21ekoak, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoak, ezartzen duena kontrolatzea, euskal gizarteari eta herritar guztiei eskaintzen dion kalitatea eta zerbitzua hobetzeko. Hori are garrantzitsuagoa da gizarte-zerbitzuen alorreko jardueretan sor daitezkeen kontzepzio etikoetan.

Horrela, adibidez, lege-maila duen arau horren 12. artikulua aipatzen da:

12. artikulua. Asegurua

1. Tituludun profesionalen aseguruaren bat izan behar dute, erantzukizun zibila dela-eta lanean dituzten arriskuei erantzuteko.
2. Betebehar hori ez da derrigorrezkoa izango hirugarrenen eskubideak bermatuta baldin badaude, kasuan kasuko jarduerak bete behar duen beste legeria baten bidez edo orokorrean bete beharreko eta helburu horretarako egindako akordioaren baten bidez.

4. ERANSKINA

Confederación Empresarial Vasca
Euskal Entrepresarien Konfederakuntza

ConfeBask

.../2012 DEKRETU-PROIEKTUA, ...REN ...KOA, ELKARRIZKETA ZIBILERAKO MAHAIA ERATU ETA ARAUTZEKOA:

• DOKUMENTUAREN XEDEA:

Confebaskek egindako alegazioen dokumentua, Elkarrizketa Zibilerako Mahaia eratzen eta arautzen duen dekretu-proiektuari buruz.

• AURREKARIAK:

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren osoko bilkurari eskatu dio **Elkarrizketa Zibilerako Mahaia eratzen duen dekretu-proiektuaren zirriborroari buruzko nahitaezko txostena emateko** urriaren 15eko bilkuran.

Txostena behar duen dekretu-proiektuaren arrazoiaren azalpenean, garapenaren funtsezko xedea eta arau honen artikuluen araudia aipatzen dira, puntu hauetan zehazten den bezala:

- Dekretu honen funtsezko helburua **Elkarrizketa Zibila ordenamendu juridikoan jasotzea da, eta, horrenbestez, gizarte-ekintzako hirugarren sektoreak erakundeetan parte hartzeko aholku-organo gorena taxutzea** Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan.
- Haren xedea da **Gobernuaren eta hirugarren sektorearen arteko elkarrizketa sustatzea eta bideratzea, betiere ere gobernatze onaren ildotik**, politika publikoen prestaketan eta betearazpenean benetako eragina izango duten akordioak lortzeko, hirugarren sektoreak, akordio horiei esker, politika horien aldeko konpromisoa har dezan, informazioa denbora eta forma egokian jasotzea eta parte-hartze eraginkorra oinarri hartuta.
- Elkarrizketa Zibilerako Mahaia **eragileek politika publikoen prestaketan eta ebaluazioan duten parte-hartzea bideratzen duten kontseiluen, batzordeen eta foroen gune osagarri gisa sortzen da.**
- Gure erakunde erkideek **hainbat tresna arau-emaile sortu dituzte** lankidetzaren esparruko ahaleginen dibertsitate aberats hori ezagutzen, arautzen, sustatzen eta babesten laguntzeko.
- Hala ere, beharrezkoa izan zen 2008. urtearen amaierara arte itxarotea **12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, argitara zedin, eta, horrenbestez, gizarte-ekintzako hirugarren sektorea gure ordenamenduan sar zezaten, zehaztu gabe bada ere**, herritarren esparru antolatutako horrekiko lankidetzaren beharraz jabetuta, nahiz eta, esan, esan dezakegun gizarte-ekintzako hirugarren sektore horrek garrantzi estrategikoa duela gure herriarentzat, eta askotariko abantailak ematen dituela, batez ere, baina ez bakarrik, balioen sustapenean, harremanezko kapitalaren sorreran eta gizarte-egituraketan, gizarte-eskubideen garapena eta sustapena bultzatzeaz eta prebentzio-jardun bizia garatzeaz gain.

Dekretu-proiektuaren xedapenak erakundeetan parte hartzeko aholku-organo honen izaera, non atxikita egongo den, helburua, eginkizunak, osaera eta finantzaketa arautzen dituzte. Hona hemen zirriborroaren artikulua garrantzitsuenetako batzuk:

- **2. artikulua. Izaera:** Elkarriketa Zibilerako Mahaia **gizarte-ekintzako hirugarren sektoreak erakundeetan parte hartzeko aholku-organo goren da Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan.**
- **3. artikulua. Gizarte-ekintzako hirugarren sektorea:** Dekretu honen ondorioetarako, **gizarte-ekintzako hirugarren sektorea** erakunde pribatu jakin batzuek osatzen dute; erakunde pribatu horiek formalki antolatuta daude, ez dute irabazteko asmorik eta, nagusiki, gizarte-elkartasuna sustatzen dihardute, hala nola pertsonen parte-hartze soziala, gizarte-eskubideak, gizarteratzea eta gizarte-kohesioa bultzatzen Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan.
- **4. artikulua. Non atxikita egongo den:** Elkarriketa Zibilerako Mahaia **gizarte-gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita egongo da**, baina haren egitura organikoan sartu gabe.
- **5. artikulua. Helburua.** Elkarriketa Zibilerako Mahaiaren eginkizuna Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren **gizarte-politiketan eragina izatea da**, bete gabeko gizarte-beharrak dituzten pertsonen ongizatea hobetzeko eta guztiz gizartera daitezen lortzeko. Era berean, Elkarriketa Zibilerako Mahaiaren xedea izango da **laguntza ematea, gizarte-ekintzako hirugarren sektorea bera** eta hartako plataformak eta sareak **egituratzea eta sendotzea, haien arteko lankidetzaz alderdia sustatzea**, erakundeen finkapena lortzea eta herri-administrazioetako sektoreek nahiz euskal gizarte osoak haiek egiten dutena ezagutu eta aitortzea.
- **6. artikulua. Osaera.** Elkarriketa Zibilerako Mahaiak hoge **kide** izango ditu; lau kide **Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrekoak** izango dira, eta gainerako hamaseiak **gizarte-ekintzako hirugarren sektorekoak**.
- **7. artikulua. Funtzioak.** 1.- Elkarriketa Zibilerako Mahaiaren izaeraren arabera, eginkizun hauek betetzea dagokio: a) Lotesleak izango ez diren **irizpenak ematea** EAEko Administrazio Orokorrek eskatuta, gobernu-jatorriko **legegintza-ekimenei** buruz, haien gaiak berariazko lotura badu parte-hartze sozialarekin eta boluntarioekin, elkartasunaren, gizarte-eskubideen eta gizarteratzearen sustapenarekin, gizarte-kohesioarekin, gizarte-dibertsitate eta -integrazioarekin, eta enpleguarekin. b) Proposamenak egitea Eusko Jaurlaritzari, haren esku-hartzearen xede diren taldeentzako politiken ildo estrategikoei eta jarduera-lehentasunei buruz, betiere EAEko Administrazio Orokorren esparruaren barruan. c) **Irizpenak, ebazpenak, gomendioak eta txostenak prestatzea**, bere ekimenez edo Eusko Jaurlaritzak edo Eusko Legebiltzarrak eskatuta, 5.1. puntuan aipatutako gaiari buruz. d) **Ekarpenak egitea Eusko Jaurlaritzaren plangintza-tresnen ebaluazioei**, bere jardueraren xede den esparruan. e) **Ikerketak egitea** hirugarren sektoreari buruz eta Mahaiarentzat interes berezikoak diren esparru espezifikoetan, hala nola hirugarren sektoreari buruzko dokumentazio-zentroa garatzea. f) Legebiltzarrari memoria edo urtekari bat helaraztea urtero, eta, hartan, egindakoa jasotzea, gizarteko ekintzako hirugarren sektorearen errealitatea deskribatzea eta esatea zer lotura duen euskal administrazio publikoekin. g) Elkarriketa Zibilerako Mahaia autonomiaz antolatzea eta egituratzea, hala nola haren plangintza eta programazioa onartzea. h) Elkarriketa Zibilerako Mahaiaren funtzionamendu-erregelamendua egitea. 2.- Goian azaldutako zereginak alde batera utzita, EAEko herri-administrazioek, egokituz joz gero, informazioa eman ahal izango diote Elkarriketa Zibilerako Mahaiari, eragiten dizkieten eta gizarte-ekintzako hirugarren sektoreari lotuta dauden araugintza- edo plangintza-ekimenei buruz.
- **12. artikulua. Elkarriketa Zibilerako Mahaiaren finantzaketa:** **Elkarriketa Zibilerako Mahaiari dagozkion eginkizunak ondo betetzeko**, eta hark dauzkan helburuak –gizarte-ekintzako hirugarren sektorea, hartako plataformak eta sareak babestea, sendotzea eta egituratzea, bai eta haien arteko lankidetzaz alderdia sustatzea ere– errazago lortzeko, **gizarte-gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak beharrezko baliabide ekonomikoak bideratuko ditu**. Baliabide horiek **Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan** edo aurrekontuetarako lege-mailako arauetan berariaz jasotako aurrekontu-kredituetatik etorriko dira.

2. IRIZPIDE OROKORRAK:

Gure iritziz, Elkarriketa Zibilerako Mahaia eratzeko dekretuari buruzko proiektu-zirriborroak **12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, urratzen du**, bi arrazoi hauengatik, batez ere:

1. Gizarte-zerbitzuen esparruan, kontsultarako eta erakundeetan parte hartzeko organo bat sortzeagatik, bat ez datorrena 12/2008 Legearen, abenduaren 5ekoaren, Gizarte Zerbitzuei buruzkoaren, III. kapituluaren 47. artikulua jasotzen duen erakundeetan parte-hartzeko hiru formulekin.

2. Abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen 48. artikulua dioena ezeztatzeagatik. Artikulu horren arabera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua kontsultarako eta parte-hartzerako organo nagusia izango da, Eusko Jaurlaritzan gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen sailari atxikia.

Arrazoibidea:

Dekretu-zirriborroak izaera juridikoa eman nahi dio Elkarrizketa Zibilaria, eta kontsultarako eta hirugarren sektoreak erakundeetan parte hartzeko organo nagusi gisa eratu nahi du EAEko esparruan. Organo horrek, zirriborroan aipatzen den bezala, honako hauek bete beharko ditu: -Gizarte-gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita egongo da, - finantziazio ekonomikoa EAEko Aurrekontu Orokorretatik etorriko zaio, - **gizarte-politiketan eragina izan behar du, eta - eginkizun hauek izango ditu, besteak beste: irizpenak emango ditu legegintza-ekimenei buruz**, haien gaiak lotura badu parte-hartze sozialarekin eta boluntarioekin, elkartasunaren, gizarte-eskubideen eta gizarteratzearen sustapenarekin, gizarte-kohesioarekin, gizarte-dibertsitate eta -integrazioarekin, eta enpleguarekin; **ikerketak egingo ditu, irizpenak, gomendioak eta txostenak prestatuko ditu; gizarte-gaiei buruzko proposamen estrategikoak egingo ditu; ekarpenak egingo dizkie Eusko Jaurlaritzaren plangintza-tresnei.** - Finantziazio ekonomikoa EAEko Aurrekontu Orokorretatik etorriko zaio.

Organo hori, beraz, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, garatzeko arau baten bidez sortu behar da, Lege horretan araututako gaiak arautu nahi direlako. Aurreko lege baten, abenduaren 5eko 12/2008 Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen, alderdiak garatu nahi dituen mendeko arau bat da, eta arau-hierarkiaren oinarritzko arrazoiengatik, arau horrek bere aurreko legeak ezartzen dituen mugetara egokitu behar du.

Alde horretatik, nabarmendu behar da arrazoiaren azalpena erabat zehaztugabea dela dekretu honen arau-garapenerako behar den oinarri juridikoa definitzean eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak ezarritako mugetara egokitzean. Izan ere, arrazoiaren azalpenean ez dago arau-erreferentziarik, eta behin bakarrik aipatzen da Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea. Zirriborroak ez ditu zehazten dekretu berri horrek garatu behar dituen Legearen xedapenak. Hori ezohikoa da erregelamendu-arau batean. Izan ere, araua idazten dutenak beti saiatzen dira garbi uzten zein den arau hori legitimatzen duen titulu juridikoa. Baina dekretu-proiektu honetan ez dago halakorik, eta badirudi nahita egindako hutsa dela, Legetik argi eta garbi urruntzen delako.

Dekretu-zirriborroak Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea behin bakarrik egiten duen aipamena erreferentziatzen hartuta, eta haren edukia aztertuta, ikusten dugu ez dela legearen arabekoa, dekretua ez baita egokitzen Gizarte Zerbitzuen Legeak arautzen dituen parte hartzeko bideetara. Lege horrek hiru formula soilik ezartzen ditu parte hartzeko, 47.2. artikulua arabera. Hala ere, dekretu-zirriborroan Elkarrizketa Zibilerako Mahaia arautu den bezala (ikus haren definizioa, ezaugarriak eta eginkizunak), ezingo litzateke egokitu Legearen hiru formuletak bakar batera ere.

47.2. artikulua. Parte-hartze hori honako formula hauen bitartez egingo da:

- a. Lege honetan aurreikusten diren kontsultarako eta parte hartzeko organoak.
- b. Parte hartzeko kontseiluak eta erabiltzaileen parte-hartzerako beste bitarteko formal batzuk, gizarte-zerbitzuetako zerbitzuetan eta zentroetan ezarritakoak.
- c. Herri-administrazioek gai orokor edo berezi jakin batzuetan parte hartzeko antolatzen dituzten prozesuak, gai horiek izan dezaketen interes bereziengatik.

Horrek Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen lehen urraketa dakar, azalpen honen hasieran aipatu duguna. Izan ere, parte hartzeko organo bat sortu nahi da gizarte-zerbitzuen alorrean, parte hartzeko laugarren formula baten bidez.

Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen bigarren urraketa haxe litzateke: gizarte-ekintzako hirugarren sektoreak erakundeetan parte hartzeko eta kontsultarako duen organo GORENA Elkarrizketa Zibilerako Mahaia izatea. Lege horren 48.1. artikulua urratzen da, haxe xedatzen baitu: **Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua kontsultarako eta parte-hartzerako organo nagusia izango da, Eusko Jaurlaritzan gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen sailari atxikia.** Dekretu-zirriborroak Elkarrizketa Zibilerako Mahaiari izaera hori ematen badio, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen borondatea ordeztu du. Izan ere, Legearen arabera, parte hartzeko maila nagusian zenbait subjektu bilduko dira, hala nola sindikatuen eta enpresaburuen ordezkariak, eta badirudi dekretu honek alboratu nahi dituela.

Halaber, kontraesanezkoa da, *per se*, bi kontsultarako organo goren egotea gizarte-gaien ardura duen sail berari atxikita. Gramatika hutsean, “goren” superlatiboa subjektu bat soilik izan daiteke; izan ere, beste batek maila bera badu, lehenengoa ezin da “goren” izan. Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen arabera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua da partaidetzarako organo gorena gizarte-zerbitzuen arloan. Gizarte-ekintzako hirugarren sektorearen jardueraren eremua gizarte-zerbitzuen eremuetako bat da. Izan ere, dekretu-proiektuak Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea aipatzen du, eta Lege horrek hirugarren sektorearen erakunde-ordezkariei leku bat ematen die Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluan. Hori argi egonik, organo berriari parte-hartze gorena emateak, ordezkatzu dituen gizarte-zerbitzuen arloari dagokionez, esan nahi du Euskal Kontseilua organo gorena izango dela, onenera jota ere, gainerako arloetan, baina ez honetan, eta, beraz, ez da gizarte-zerbitzuen arloko erakundeetan parte hartzeko organo gorena izango, Legeak hori ezarri arren. Horrenbestez, Legea aldatzeko arau-maila nahikoa ez duen arau batek Legea urratzen du.

Bestalde, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea betez (48. art.) eraturako Gizarte Zerbitzuen Kontseiluak eta haren organo sektorial batzuek eskumenak galdu eta eduki gutxiago izango dituzte. Izan ere, Elkarrizketa Zibilerako Mahaiari ematen zaizkion eginkizunetako batzuk Gizarte Zerbitzuen Kontseiluak egiten ditu dagoeneko. Hirugarren sektoreak hitza eta botoa ditu Kontseilu horretan, eta parte hartzen du. Halaber, Elkarrizketa Zibilerako Mahaiari ematen zaizkion eginkizunetakoren batek (adibidez, ikerketa) bete ditzake Gizarte Gaietako Sailburuordetzari atxikitako beste organo batzuen berezko eginkizunak (adibidez, behatokiak lana).

48.1. artikulua: Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua: Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua **konsultarako eta parte-hartzerako organo nagusia izango da, Eusko Jaurlaritzan gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen sailari atxikia**, eta, bertan, ordezkari paritarioa izango dute, alde batetik Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek, eta, bestetik, arloan parte hartzen duten gizarte-eragile guztiek, zehazki, sindikatu-erakundeek, enpresaburuen elkarteek, erabiltzaileen erakundeek, gizarte-ekintzaren hirugarren sektorekoek eta gizarte-zerbitzuen arloan lan egiten duten profesionalen elkarteek.

Agian, dekretua legearen arabera izan liteke, baldin eta Elkarrizketa Zibilerako Mahaia kontsultarako organo sektoriala eta Gizarte Zerbitzuen Kontseiluaren mendekoa izango balitz, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 48.4. artikuluekin bat etorritik. Artikulu horrek aukera ematen du gizarte-zerbitzuen kontseilu sektorialak sortzeko, kontsultarako eta parte hartzeko, eta beharizan berezien arabera zehaztutako arloetan jarduteko. Orain arte, kontseilu sektorialak landuko diren gaien arabera eratu dira, eta hirugarren sektoreak ere parte hartu du, baina pentsatu beharko litzateke ea onargarria den hirugarren sektorearentzat berariazko kontseilu sektorial bat eratzea, eztabaida- eta lan-foro bat izateko.

Dena dela, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren barneko organo bat izango litzateke, Kontseilu horrek gizarte-zerbitzuen gaietan duen ordezkari goren errespetatuz, 12/2008 Legean ezartzen den bezala.

48.4. Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren barruan gizarte-zerbitzuen kontseilu sektorialak sortu ahal izango dira; kontsultarako eta parte-hartzerako izango dira, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren erabiltzaileen eta profesionalen beharrian berezien arabera zehaztuko da zein arlotan jardungo diren. Arlokako kontseilu horiek aintzat hartu ahal izango dituzte beren eginkizuna betetzeko egoki iruditzen zaizkien txosten eta ikerketa guztiak, bai eta, bereziki, erabiltzaileen ordezkaritza-erakundeek eta gizarte-ekintzaren hirugarren sektorekoek egindako proposamenak ere. Nolanahi ere, beharrezkotzat jotzen diren beste batzuk sortzea eragotzi gabe, nahitaez eratu beharko dira arlo hauetako kontseiluak: adinduak, haurrak, ezinduak eta gizarteratzea. Orobat, gizarte-zerbitzuen arloko enpleguaren kalitaterako eta prestakuntzaren eta kualifikazioaren hobekuntzarako kontseilu bat ere sortu beharko da.

Kontseilu sektorialen eginkizunak, osaera eta funtzionamendu-araubidea kontseiluok sortzeko xedapenetan ezarriko dira; xedapen horiek gizonezkoen eta emakumezkoen ordezkaritza orekatua izan dadin zaindu beharko dute.

Dekretuaren formari eta edukiari dagokion balorazio juridikoa alde batera utzirik, honako hau adierazi beharra dago:

2009. urtean legegintzaldi hau hasi zenetik, behin eta berriz nabarmendu dugu oso garrantzitsua dela gizartearen erantzunkidetasuna eta gobernantza parte-hartzailea sustatzea elkarrizketaguneen bidez. Gainera, gure kasuan, Administrazioaren, sindikatuen eta enpresaburuen elkarleen arteko Elkarrizketa Sozialerako Mahaiak aukera ematen digu erantzunkidetasun eta gobernantza parte-hartzaile hori bideratzeko, Elkarrizketa Zibilerako Mahia egiten ari den ildo beretik. Alde horretatik, inoiz ez dugu zalantzan jarri beste elkarrizketagune batzuek egon behar dutela Administrazioaren eta gizartearen eragile garrantzitsuen artean; adibidez, hirugarren sektorea Elkarrizketa Zibilerako Mahaian.

Hala ere, ez dago elkarrizketarako mahaiak edo guneak zertan instituzionalizatu eta kontsultarako organo bihurtu. Izan ere, badira erakundeetan parte hartzeko berariazko organoak; kasu honetan, gizarte-gaiei eta enpleguari buruzkoak.

**5. ERANSKINA**

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiako Jubilatuen Lurralde Elkartea
Euskofederpen

Federación Territorial de Asociaciones Provinciales de
Pensionistas y Jubilados de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya
Euskofederpen

Donostia – San Sebastián 11 de octubre de 2012

El Sr. D. José Manuel Odriozola Azurmendi, como representante de Euskofederpen declara que no presenta ninguna alegación a Borrador del Decreto /2012, por el que se constituye y regula la Mesa de Diálogo Civil.

Esta declaración se hace a los efectos de la emisión del Informe Preceptivo sobre el Decreto mencionado, a tratar en el punto nº 5 del Orden del Día de la reunión del Pleno del Consejo Vasco de Servicios Sociales del día 15 de octubre de 2012.

Fdo. José Manuel Odriozola Azurmendi

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiako Jubilatuen
Lurralde Elkartea - Euskofederpen
Federación Territorial de Asociaciones
Provinciales de Pensionistas y Jubilados de
Álava, Guipúzcoa y Vizcaya - Euskofederpen

Prim: 49 - 2.ª izda: Tel. 943 46 46 62 • Fax 943 46 49 88
e-mail: federpen@euskalnet.net • 20006 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

6. ERANSKINA

Gaia: Elkarriketa Zibilerako Mahia eratzeko eta arautzeko dekretua (2012ko irailaren 12ko testua)

Ondoren, Elkarriketa Zibilerako Mahaia eratzen eta arautzen duen dekretuaren testuari buruzko iritzi batzuk adierazten ditugu.

Lehenengoa: Dekretuaren azalpenean adierazten da elkarriketa zibilerako mahaia gizarte-ekintzako hirugarren sektoreak erakundeetan parte hartzeko aholku-organo gorena izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren jardura-eremuan, baina dekretuaren zenbait artikulutan ez da gauza bera adierazten, eta hori nahasgarria izan daiteke.

Arazo hori konpontzeko, testuak berariaz jaso behar du elkarriketa zibilerako mahaia gizarte-ekintzako hirugarren sektoreak erakundeetan parte hartzeko aholku-organoa izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren jardura-eremuan.

Adierazitakoa aintzat hartuz, 2. eta 7. artikuluetan zenbait aldaketa egitea proposatzen dugu. Honela geratuko lirateke:

2. artikulua. Izaera

“Elkarriketa Zibilerako Mahaia gizarte-ekintzako hirugarren sektoreak erakundeetan parte hartzeko aholku-organo gorena da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren jardura-eremuan.”

7. artikulua. Eginkizunak.

“...b) Proposamenak egitea Eusko Jaurlaritzari, haren esku-hartzearen xede diren taldeentzako politiken ildo estrategikoei eta jardura-lehentasunei buruz, betiere EAEko Administrazio Orokorraren esparruaren barruan.

c) Irizpenak, ebazpenak, gomendioak eta txostenak prestatzea, bere ekimenez edo Eusko Jaurlaritzak edo Eusko Legebiltzarrak eskatuta, 5.1. puntuan aipatutako gaiei buruz.

d) Ekarpenak egitea Eusko Jaurlaritzaren plangintza-tresnen ebaluazioei, bere jardueraren xede den esparruan.

... f) Legebiltzarrari memoria edo urtekari bat helaraztea urtero, eta, hartan, egindakoa jasotzea, gizarteko ekintzako hirugarren sektorearen errealitatea deskribatzea eta esatea zer lotura duen EAEko Administrazio Orokorrearekin.

...2.- (2. paragrafoa kendu)."

Bigarrenen: 6. artikulua 4. paragrafoaren arabera, Elkarrikeria Zibilerako Mahaiko bi kide aukeratzeko, Mahaiaren funtzionamendurako erregelamenduak ezartzen duena beteko da.

Gure iritziz, dekretuak jaso behar du zer erakunde edo sektoretakoak izan behar duten bi kide horiek, eta hori ez da funtzionamendurako erregelamenduaren esku utzi behar.

Hirugarrena: Nabarmendu behar da, halaber, ez dakigula gizarte-gaiak esleituta dituzten sailburuak eta sailburuordeak zergatik ez duten boto-eskubiderik; baina komunitate-politikan eskumena duten zuzendariak eta teknikariak, berriz, bai.

Laugarrena: Azkenik, aipatu behar da 8. eta 9. artikuluek ezartzen dutela presidente eta presidenteorde karguek bi urteko iraupena izango dutela. Baina ez da zehazten gainerako kideen karguen iraupena, eta, gure iritziz, dekretuaren testuan zehaztu behar da.

Bilbao, 2012ko urriaren 10a

7. ERANSKINA

**GAIA: LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN ETA
UDALETAKO GIZARTE-ZERBITZUEN ARTEKO LANKIDETZA
GIZARTERATZE AKTIBORAKO HITZARMENAREN ESPARRUAN**

(2012ko uztailaren 18ko testua)

2012ko uztailaren 18ko zirriborroa aztertu ondoren, gizarteratze aktiborako hitzarmenen esparruan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta udaletako gizarte-zerbitzuen arteko lankidetza-protokoloei buruzkoa, honako iritzi tekniko hauek adierazten ditugu:

- I. Lankidetza behar duten kasuak hautemateari buruzko atalean, aipatzen da pertsona lan-merkatu arruntean sartzeari oztopa dezaketen faktore soziopertsonalak, enplegarritasuna baloratzeko tresna osatzen dutenak, udaletako gizarte-zerbitzuekin adostuko direla. Komenigarria litzateke adierazle horiek landuta egotea protokoloa aplikatzen hasten denerako.
- II. Prozedurak berdina izan behar du, sartzeko modua zein den ere (Lanbide edo UGZ); baimen-dokumentu bat emango da sistema batetik bestera eramateko, sistema hartzailearen ohiko bideei jarraituz.
- III. Epeak, halaber, berdinak izango dira. Badirudi epe laburrak beti gizarte-zerbitzuetakoak direla; Lanbidek, berriz, ez du bat ere, hitzarmenaren betetze-mailaren jarraipenaren epea izan ezik (bi hilez behin eta sei hilez behin).
- IV. Testuan, epeak egun naturaletan eta lanegunetan betetzen dira. Komenigarria litzateke argitzea zer diren lanegunak (egun baliodunak, lanegunak, naturalak), eta, ahal bada, irizpide bera erabiltzea testu osoan.
- V. Testuaren arabera, Lanbidek erabakitzen badu pertsona bati Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta etetea, pertsonaren hitzarmena sistema bien artean lantzen ari dela, etetearen berri emango zaio gizarte-langile erreferenteari. Proposatzen dugu eten hori aldeztu aurretik kontsultatzea.

VI. Lankidetza-protokoloa. Lanbidek udaletako gizarte-zerbitzuei bideratzen dienean:

- 3. URRATSA: Argitu behar da, erabiltzaileari sistema batetik bestera bideratzeko dokumentua eman ondoren, erabiltzaileak berak eskatu behar duela hitzordua beste sisteman, eta dokumentua eman.
- 4. URRATSA: 2 eguneko epea laburra da, nahiz eta gizarte-zerbitzuek pertsona horren berri izan. 7 eguneko epea proposatzen dugu, edo epea kentzea.
- 6. URRATSA: Alde batetik, pertsonak gizarte-zerbitzuak erabiltzen dituenean egin beharreko prozedurari dagokionez, gure iritziz erabiltzailea oso baztertuta dagoela zehazten duen txostenaren kopia bat bidaltzeak datuak babesteko eskubidea urra dezake, informazio pribatua izan baitezake, enplegu-zerbitzuentzat garrantzirik ez duena. Hori horrela konpon daiteke: pertsona egoera horretan dagoela egiaztatzen duen agiria udaletako gizarte-zerbitzuei bidaliz.
Atal horretan bertan, informazio hori bidaltzeko 7 eguneko epea oso laburra da. 20 eguneko epea proposatzen dugu, edo epea kentzea.
- 9. URRATSA: Pertsona gizarte-zerbitzuen erabiltzailea ez bada, baina hasierako balorazioa egin ondoren Arreta Plan Pertsonalizatu bat behar duela erabaki bada, 6 hilabeteko epea ezartzen da Plana egiteko. Denbora horretan, Lanbidek pertsona horrekin lanean jarraitzen al du edo haren espedientea gelditu egiten da?
Atal horretan bertan, aipatzen da udaletako gizarte-zerbitzuek Lanbideri jakinaraziko diotela pertsona horrek baduela arreta-plan pertsonalizatua, bai eta zein diren plan horretako neurri nagusiak ere erabiltzailea gizarteratzeko eta laneratzeko. Proposatzen dugu gizarte-langileak erabakitzea azken hori jakinaraziko duen edo ez, eta horrela adieraztea testuan.
- 11. URRATSA: Emandako epea laburra izan daiteke. Hilabete 1 proposatzen dugu.
- 14. URRATSA: Gure iritziz, lankidetza amaitzeko, erabakia alde biek hartu behar dute (gizarte-zerbitzuek eta enpleguak), eta ez alde batek soilik. *“gizarte-zerbitzuei proposatuko zaie...”*

VII. Lankidetza-protokoloa. Udaletako gizarte-zerbitzuek Lanbideri bideratzen diotenean.

- 4. URRATSA: Proposatutako epea luzatzea edo kentzea proposatzen dugu.
- 8. URRATSA: Berriz ere, proposatzen den epea gizarte-zerbitzuentzat da. Lehenago aipatu dugun bezala, 30 egunera luzatzea edo kentzea proposatzen dugu.
Atal horretan bertan, DBE ez eteteko proposamena aipatzen da, eta pertsona horiek, hain zuzen, ez dute DBE jasotzen.
- 11. URRATSA: Lehenago adierazi dugun bezala, gure iritziz, lankidetza amaitzeko, erabakia alde biek hartu behar dute (gizarte-zerbitzuek eta enpleguak), eta ez alde batek soilik. *“gizarte-zerbitzuei proposatuko zaie...”*

VIII. Gure iritziz, etengabeko komunikazio-egitura bat sortu behar da udaletako gizarte-zerbitzuen (EUDEL da ordezkaria) eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren artean, sistema biek herrietan egiten duten lana koordinatzeko (prestazio ekonomikoak, protokoloa gizarteratze aktiborako hitzarmenen esparruan, enplegu babestua...).

Bilbao, 2012ko irailaren 24a.